

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

2174

IRAGARKIA, Etxebizitzako sailburuordearen Ebazpena jakinarazten duena. Ebazpen horren bidez, EB2-0621/11-BB espedientean Roberto Berriategortua Solaguren jaunak jarritako gora jotzeko errekurtsua ebazten da.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitzako sailburuordeak ebazpena eman zuen 2012ko otsailaren 10ean, Roberto Berriategortua Solaguren jaunak jarritako gora jotzeko errekurtsua estimatzen zuena.

Ezin izanenez aipatutako ebazpena jakinarazi, iragarpen hau argitaratzen da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 eta 61. artikuluetan xedatutakoa betez. Horrez gain, ohartarazpen hauek egiten dira:

1.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du, eta berorren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Ebazpenaren testu osoa eskuragarri izango du interesdunak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz) edo bere bizilekuko lurralde-ordezkaritzan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 27a.

Zerbitzu zuzendaria,
PALOMA USATORRE MINGO.